

# FUTBOLA ETA HEDABIDEAK BIKOA NAZIO NORTASUNEN JOKO ZELAI GARAIKIDEA: XIX. MENDETIK XXI. MENDERAKO AINGURA

**Tesiaren egilea:** Ekain Rojo Labaien

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Ikus-entzunezko eta Publizitate Saila

**Tesi-zuzendaria:** Josu Amezaga Albizu

**Tesiaren laburpena:**

Doktorego-tesi honen sortzezko helburua futbolaren eta nazio-nortasunen arteko bistako loturari gizarte-zientzien baitako arrazoibidea ematea zen. Esan nahi baita, gaurkotasuna duen gai honen gainean sorrarazten diren polemika eta ezbaietatik haratago, teoriaren euskarriaz eta munduko errealitate ezberdinen alderaketan oinarriturik, ezagutza zientifikoa erdiestea. Halaber, egilearen sortzezko ikasketa-eremua ikus-entzunezko komunikazioa denez, hedabideen eta, oroz gain, telebistaren parte-hartze giltzarria nabarmentzen du ikerketak, futbolak nazioak irudikatze eta birsortzezko duen ahalmenari dagokionez. Ezina da futbol-ekitaldia hedabideak aintzat hartzeke behatzea eta, halaber, alderantzizko noranzkoan ere, desegokia izango litzateke futbol-jazoeraren tamaina ez kontuan hartzea, hedabide garaikideen behaketa egiterakoan. Tesi-ikerketak, munduko kasuak alderaketa-metodologiaz aztertuta ateratako ezagutzak Euskal Herriaren eta Espainiaren hurbileko kasua bidezkotasunez aztertzea ahalbidetzen du, amaiera aldera. Ondorioetan azaleratzen da, bestalde, futbol guztizko ekitaldia nazioaren eta estatuaren oinarritzko politika-antolamenduen orainaldia eta bilakaera aztertzezko ikergai bitartekoa ere badela, ikergaia izateaz batera.

Sei ataletan banatutako doktorego-tesia da. Gaiaren hautuaren aldeko argudioak aurkeztu ostean, nazioari buruzko eta nazio-nortasunari buruzko beharrezko euskarri teorikoa azaltzen da, ikerketaren giltzarria den neurrian. Hirugarren atalak futbolaren sorreraz, nazio-nortasunen futbol bidezko haragitzeaz eta bi horien uztarpenaz dihardu; gainera, mundu osoko kasuak aztertu eta alderatzen dira atal horretan, tesiaren atalik mardulena osatzeraino. Futbolaz ekarpen zientifikoa egiteko xedeaz, ikertzaileak premiazkotzat jotzen zuen guztizko ezagutza erdiestea. Laugarren atalean, alde teoriko bat dago, hedabideek futbolaz nazio-nortasunak eraikitzezko duten eraginari buruz; bestalde, eduki-analisiaren bidez aztertu eta alderatu dira Frantziako eta Espainiako telebista-emankizunak, ikusteko zein jokabide izan duten, 2010eko Munduko Kopan, beren nazio-taldeekin. Tesiko bosgarren atalean, futbolak Euskal Herriaren eta Espainiako estatuaren bilakaera adieraztean egin duen ekarpena eta eragina aztertzen dira. Seigarren atala ikerketaren guztizko ondorioei dagokie, eta zazpigarrenean, nazioarteko tesiaren izendapenari zor, tesiaren frantsesezko aldaera laburtua dago.

Tesi honetako ikerketak egiaztatzen du futbolak eta hedabideek osatzen duten bikoak funtsezko garrantzia duela nazio-nortasunen haragitze garaikidean, eta futbol-ekitaldiaren ospea, hain justu, nortasun kolektiboak ordezkatzeko ahalean datzala. Industrializazio-aroak lehenik, eta postmodernitate izeneko XXI. mendearen hastapeneko aro ziurgabeak bestetik, sortzen duten gizarte modernoek norbanakotze-arriskuari futbolak helduleku gisakoa eskaintzen dio. Hala, tesi honek erakusten du estatu-nazioentzat nahiz estaturik ez duten nazioentzat alde batetik, eta norbanakoentzat, bestetik, futbola XIX. mendetik XXI. menderako aingura izan dela.